

**Sutondoan** Autobus zerbitzuen aldeko herri plataforma sortu da  
**Kale Kantalian** Jaietako eta oporretako argazki albuma

# Oporetan

SORALUZEKO  
HAMABOSTEKARIA  
139. alea, 2006eko  
irailaren 15ean

**OPORRETAN HERRI ZYLOTIK**  
**MYNDY ZABALERA**





# SORALUZE • Errekalde kalea

Fatxada  
Ibai aldetik



- 2 - 3 logelako etxebizitzak
  - Garajeak
- KALITATE GORENEKO MATERIALEZ EGINAK**

**INFORMAZIOA ETA SALMENTA: AURRETIK HITZORDUA JARRITA**



**GABILONDO**  
INMOBILIARIA ETA HIRI-GINTZA

Bezeroarentzako arreta bulegoa  
Gila tabernaren ondoko lokalean.  
Tel. 943 74 44 67 • Mob. 607 74 12 38

*J.M. Azpeleta Iturricastillo*  
*Edurne Gabilondo Loyola*  
Zuzendariak



**MAKINA BEREZIAK  
LERRO AUTOMATIKOAK  
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA**



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.  
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE

# Inmigrazioa = Arrazismoa?



MIREN LOURDES PASTORIZA

Opor garaia bukatu berri dugula nire azken bidaiara kontatzera noakizue.

Nire asmoetan ez da inoiz Finlandiara (Suomi) joatea egon, baina bizitzak dakar-kigunaz ezer gutxi dakigunez hara nondik egun batean lagun batekin tea hartzeko geraturik nengoen kafetegian duela 20 urtetik Finlandian bizi den Bilbotar bat ezagutzeko aukera izan nuen. Hala gaur egun oraindik dirauen adiskidetasuna hasi zen. Orduetik hainbatetan bisitatu izan dut bere hiria, Kotka izenekoa.

Lagun honek bere esperientzia kontatu zidan. Haren esanetan, hasieran oso gaizki sentitzen zen, bai hango jendearen jarreragatik bai eguraldiagatik bai etorkin gutxi egoteagatik. Arazorik handienak jendearekiko harremanak eta hizkuntza izan ziren, ikasi zuena premia izan zuenean. Bere burua bazterturik ikustean poliki poliki bertaritzen joan ziren beste etorkin batzuekin elkartzen joan zen, adibidez, indiarrak, turkiarrak, eta abar, ze antza, eurentzat etorkinak ez dira hain ongiatorriak, hori dela eta guztiei ezizenen bat jartzen diote, esate baterako espainarrei "manolito", eta edonori "beltz", "txi-

mino" edo "begi oker". Gaur egun, aitzitik bere lurra maitatzeari uzteke beste edozein finlandiar bezala sentitzen da.

Hortaz, teknologia arloan oso garaturiko herrialde batean egon arren, arrazismoa nabarmena da. Hala ere, alde handia dago hiri txiki batetik (Kotka) hiri handi batera (Helsinki); azken hauetan errazagoa da bizitzea etorkin kopuru handiagoa dagoelako.

Ni neure aldetik, lehenengoz joan nintzanean turista lez izan zen: leku ikusgarriak ikustera eta batik bat ondo pasatzera. Ezagutu dudan jendea, ordea, ez da orohar finlandiara izan, baizik eta herrialde desberdinetakoa, haiekin ingeleraz komunikatuz. Besteetan, aldiz, hango ohiturak eta kultura ikertzera joan izan naiz.

Dena den, nahiz eta finlandiarrekin harreman handirik izan ez, honek ez dit herrialdea hobeto ezagutzeko gogoak kendu.

Hau guztia kontuan hartuta honako galdera datorkit burura, zer sentituko ote zuten antzinan gure herrialdera zetozen etorkinek eta egun datozenek, arrazismoa ote?

## ZER SENTITUKO OTE ZUTEN ANTZINAN GURE HERRIALDERA ZETOZEN ETORKINEK?



### Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze  
Telefona 943 75 13 04  
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU  
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

### Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno  
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno

### Publizitatea:

Ugaitz Catalan  
Logotipoa: Jon Gabilondo  
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale  
Inprimategia: Gertu Koop.  
Diseinua eta maketazioa: Silvio Vaz eta Aitor Madrid  
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



### ERREPORTAIA

4 bidaiaren berri emango dizuegu erreportaian. Indian, Tibeten, Cuban eta Dominikar errepublikan izan diren plazentziatarren testigantzak eta argazkiak jaso ditugu ale honetarako.

## Zorion agurrak



**Miren Alonso Garaizabal**  
Irailaren 6an, 4 urte  
Zorionak maitia!  
Etxekuen partez



**Izar eta Iker Makinai**  
Abuztuaren 3an, urtebete  
Abuztuaren 27an, 31 urte  
Zorionak eta muxu handi bat!  
Ianire, Miriam eta familiaren partez



**Egoitz Unamuno**  
Irailak 16xan, 27 urte.  
Zorionak! Urtiak ez doiaz  
alperrik...baina zu geruago  
ta gaztiago, politt hori!!



**Maren eta Claudio Unamuno**  
Irailaren 3an, 2 urte  
Abuztuaren 29an, 63 urte  
Etxeko alaixeneri zorionak!  
Familixian partez



**Aitor Madrid**  
Irailak 15ean,  
hogetamapiku  
Zorionak zuri, zorionak  
zuri...  
Belarri tirakada bat  
pilpileanekuon partez



**Leire eta Irma Mendizabal**  
Irailaren 23an  
Irailaren 26an  
Zorionak bollitos!  
Ondo pasau zuen egunian!  
Etxekuen partez



**RKzulo zozketa**  
**Daiana Rico**  
Zorionak! Datorren urtean  
gitarra hartu eta taula  
gainera!

### Jaiotakoak

- OIER GARCÍA ALVARADO
- MARKEL MANUEL MARIDUEÑA MOLINA
- MALEN GARITANO GÓMEZ
- ASIER MARTÍN GONZÁLEZ
- MIKEL VIEIRA HERRERO

### Hildakoak

- JOSEFA EGUREN LARREATEGI
- MARIA PILAR EGUREN MARDARAS
- MANUEL RIVERO BORREGO
- MARIA ARANZAZU ARGARATE AGIRREBALZATEGI

### Ekintzak

#### Edonostia.net ikastaroak

Informatika ikastaroak. Hastapenekoak eta aurreratuagoak. Urria, azaroa eta abenduan. Epea: Plazak bete arte. Tel: 902077800 www.edonostia.net

### Lehiaketak

#### Bidaia eta mendi kroniken lehiaketa

Berria Egunkaria. Argitaratu gabeko idazlanak, 8.000-10.000 karaktere, 8-12 argazkirekin. Saria: Zermatt goimendietan zeharkaldia. Epea: 2006-10-31. Tel: 943 304030 www.berria.info

### Lana

Gizarte Laguntzaile bat Errenteriako Udalerako

Errenteriako Udala. Gizarte Lanetan diplomatua edo baliokidea izatea eta 3. Hizkuntza eskakizuna. Epea: 2006-09-29  
Tel: 943 449600 www.gipuzkoa.net

## Oharra

- **Nafarroa Oinezarako boluntarioak behar dira**, saltoki, txozna, segurtasun...lanetarako. Telefonoak: 948 631558/948 625215/600 344655  
Meila: oinezbera@hotmail.com

## Gutuna

### NAHIKOA DA!

Soraluzeko Garraio Publikoaren aldeko Plataforma osatzen dugun kideak gure eskubideak erabiliz, Soraluzeko garraio publikoari buruz ditugun kezak eta premiak azaldu nahi ditugu. Uste dugu, heldu dela momentua, gure herriak urteetan jasan duen garraio publikoaren eskasiari NAHIKOA DELA esateko. Gainera konturatu gara, inguruko herrietan hobetzen doan bitartean, gure herrian egoera txarrera doala.

Soraluze herri txikia izanik, zerbitzu gutxi du, eta inguruko herrietara jo beharra izaten dugu (Eibar, Bergara, Elgoibar, Arrasate, Donostia...)  
Orain daukagun egoeraren zenbait adibide:

- Eibar - Bergara - Elgoibar: orduru daukagun zerbitzua ez da egokia, ezta nahikoa ere; ikasle, langile, eta abar ez dira ordurako heltzen ez ikastetxetara, ez lantegietara. Gainera,

Euskotrenekin koordinatuta ez dagoenez, Jubilatuek Eibarren ia ordubete itxaron behar diote trenari. Egoera honen aurrean, behartuta gaude zerbitzu pribatua erabiltzera eta antolatzera.

- Elgoibarko anbulatorioa: Ez dago inolako garraio zerbitzurik bertara joateko, nahiz eta gure larrialdi zerbitzua eta arratsaldeko 3retatik goizeko 9retara, anbulategi zerbitzua han izan, astegun eta asteburutan.

- Mendaroko Ospitalea: Goizez hiru bakarrik. Arratsaldez, asteburu eta jai egunetan ez daukagu garraio zerbitzurik.

- Deba: Ez dago zerbitzurik gure bialarako kostaldara.

- Donostia: Premiak ez dira asetzen dagoen zerbitzuarekin (adibidez: ez dago autobusik goizeko 6,50etatik 11arte).

Egoera hauen aurrean ondorengo eskatzen dugu:

1- Eibar-Soraluze-Bergara-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza: ordu-erdiro.

2- Soraluze-Elgoibar-Mendaro-Deba-Mutriku (Debabarrena): gure bailararako herriekin lotura egokia edukitzea (Adibidez: Soraluzetik Debaraino Euskotrena jartzea orduru)

3- Donostia: orduru, Donostian hiru lekutan gelditzea: Bentaberri, Zentroa eta Amara (beste autobus batzuk bezela)

4- Gasteiz: Orain arte genuena berriz jartzea.

5- Debagoiena eta Debabarrena lotuko dituen proiektuan (tranbiarena, esaterako), Soraluze kontutan hartzea eskatzen dugu.

Hamabost egunera konponbiderik ez badago, gure mugimenduak beste bide batzuk jorratuko ditu; hala nola, sinadura bilketak, manifestazioak...

#### Soraluzeko Garraio Publikoaren Aldeko Plataforma

Amaia Laskurain (Soraluze)

## Zer irizten dotsazu?

Azkenaldian eguneroko berri bilakatu da etorkinen etorrera. Gero eta gehiago dira beren herriak utzi eta bizitza hobe baten bila Europara datozenak.

# Zer eritzi duzu etorkinen etorreraz?



**Amparo Fernandez**  
41 urte, dendarixa

Azkenian gu baino gehixago izatera helduko dira. Egixa esan, soluziño zaila daka. Ez dakit, eurek ikusiko dabe edo politikuak konpondu bihar.



**Sara Goenaga**  
43 urte, dendarixa

Baldintzak ipintzia biharrezkua da, baina euren herrixa hobetzekuak. Konponbidia euki bihar dau danon kolaboraziñuakin eta ez dau balixo partxiak ipintzerik.



**Carmen Dacosta**  
63 urte, etxeoandria

Txarrena da ez daguala bape kontrolik. Honek soluziño zaila daka, baina guk eta gainontzeko naziñuak lagundu geinke; ez bakarrik diruz, beren kabuz aurrera egitten erakutsixaz baita.



**Guillermo Garcia**  
45 urte, estanpatzailea

Nun sartu danak? Normala da hau gertatzia, geuk be euren egoeran egonda berdina egingo genduke. Hala be, erregulatu egin biharko litzake; seguruakin, kontratua kin...



**Iban Ayora**  
11 urte, ikaslia

Batzutan baleike arazuak izatia, baina ez jata harritzen euren herrixan ez daukelako ez diru eta ez baliabide bizitzeko. Eta hemen be guk nahi ez doguzen lanetan ibili bihar askotan.



**Juan José Cruz**  
56 urte, taxistia

Merkatua da hemen agintzen dabena; lana badago hona etorriko dira. Mundu mailan aberatsak aberasten dabiz; beraz, honek inbertidu bihar dabe diru gehixago gainontzekuak laguntzeko.

Javier Alonso Zelaieta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K. Z. 20.000.434

**HORTZ KLINIKA**  
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

تہذیب و ثقافت

**GAZTELUPE**  
taberna

tel: 943 75 20 81

تہذیب و ثقافت





### ASIER ETA IÑAKI 5. URTEURRENEKO OMENALDIA

*Irailaren 10ean, Asier Eriz eta Iñaki Saezen oroitzak ekitaldia antolatuta zuten mendi gainean. Urtero bezela, senide eta lagunek, lore eskaintza eta agurra eskeini zizkieten euren omenez jarritako monolitoaren aurrean. Asierrek eta Iñakik 2001eko irailaren 8an galdu zuten bizia Lurdes Txurruka preso bisitazera zoazela Avilako espetxera.*

## Bizikletak konpontzeko tailerra eta bizikleta martxa

Europako mugikortasun iraunkorraren astea dela eta, Debegesak eta Debabarreneko udalek zenbait ekintza antolatu dituzte egunotarako. Irailaren 16an, zapatuan, bizikletak konpontzeko tailerra jarri zuten Plaza Berrian, bizikletaren erabilpena sustatzeko asmoz. Datorren igandean, Irailaren 24an, bizikleta ibilaldia izango da debabarrenean zehar, Mallabiatik Mutrikuraino. Maltzagatik 10:05ean pasatuko da. Egitarauarekin bukatzeko, urriaren 1ean 10km mendi martxa izango da Elgoibarko Sa-



llobente auzoan. Informazio gehiago 943820110 telefonora deituta.

### SACIAko BOE-en zozketa urriaren 11n

Saciako etxebizitza ofizialen zozketa urriaren 11n egingo da kiroldegian, eguerdiko 12 etan. 50 etxebizitza berri eraikiko dira SACIAN, horietatik 16 etxebizitza sozialak izango dira, hau da, errenta txikia duten familiendako.

### Arrain mordoxka ibaian



Aurtengo udan loinak, eskailuak eta barbuak ikusi ahal izan dira ibaian, aurreko urteetan baino dexentez gehiago. Bestalde, zenbait herritarrek esan digutenez, gauero sagu zahar zuri bat Gila zubi inguruetan aritzen da hegan.



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



**SAN ANDRES**  
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46



**MENDIZABAL**

OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefona 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefona 943 75 13 99  
SORALUZE

Telefona 75 24 09

**ARRANO**  
*tabernia*

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU



EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK  
**etxera**

# Oposizioak ez du onartu kiroldegi gaineko proiektua

PESAKo autobusen aferaz aparte, Irailaren 8ko udalbatzarrean Urkulutik Eibarrerako ur trasbasearen ibilbidea eta kiroldegi gaineko proiektua ere eztabaidatu zituzten udal taldeek.

## Oposizioa ur trasbasea saihebidetik egitearen alde

SAH-k ur trasbasearen inguruko mozio bat aurkeztu zuen, informazio falta salatu eta ibilbidea saihebidetik egiteko eskatuz. Alkatuek erantzun zuen abuztuaren 3an jakin zuela era ofizialean trasbaseak Errekalde-Rabal-Sagar Erreka bidea jarraituko duela. Ibilbide honen alde dago udal gobernua eta mozioaren aurka bozkatu zen. PSEk eta PPk ere ibilbidea aldatzea eskatu zuten, herritarrei arazo gutxiago sortuko dielakoan.

## Kiroldegi gaineko proiektua

Gai honen inguruan ere ez zen adostasunik izan. Diputazioaren eta

Udalaren arteko hitzarmena bozkatu beharra zegoen, kiroldegiko proiektua burutu ahal izateko. Oposizio taldeek gaia mahai gainean uztea eskatu zuten, proiektuaren inguruko informaziorik ez dutela jaso argudiatuz. Bozketan abstenitu egin ziren. Irailaren 12an Diputatu nagusia etorri zen kiroldegira proiektua ezagutzera. Herritarrek kiroldegiko erakusketa gelan dituzte ikusgai proiektuaren planoak, 19:00-20:30era astebarruan eta 12:00-13:30etara zapatuetan.



# Begirale izateko ikastaroa

Debabarreneko Udalek Begirale Ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa zapatuetan izango da, urritik maiztera bitartean. Urtxintxa eskolak eskainiko du. Prezioa 250 eurokoa

da eta izen ematea irailaren 13tik 24ra egin beharko da Soraluzeko Udaleko Euskara Zerbitzuan. Informazio gehiago 943753043 telefono zenbakian.

## Matrikulazioak gora ikastetxean

Iaz baino 20 ume gehiago matrikulatu dira aurten Plaentxi Herri ikastetxean. 2 urtekoen gelan izan da aldaketarik haundiena. Iaz 30 ume hasi ziren txikienean gelan; aurten 40. Adin guztiak kontuan hartuta, 287 umek hasi dute ikasurtea. Institutuari dagokionez, kopuruak kontrakoak dira. 20 ikasle gutxiago dituzte aurten, 126 guztira.

## Ikastetxeko patioaren inaugurazioa

Irailaren 15ean inauguratu zen Ikastetxeko patioa. Lanek 330.000 euro kostatu dute; %60 Hezkuntza delegaritzak ordaindu du eta %40 Udalak. Ekitaldian udaleko ordezkariak, ikastetxeko ardurdunak eta guraso elkarteko ordezkariak izan ziren.



**LAKUESTA OPTIKA**  
OPTIKO-OPTOMETRISTAK  
IKUSMEN ARAZOEN FROGAK ETA ARGIBIDEAK  
ARGAZKIAK ERREBELATZEN DITUGU  
SANTA ANA 22 20590 SORALUZE  
TEL: 943753059 (GIPUZKOA)

**IÑAKI IÑARRA**  
HARATEGI ETA URDATEGIA  
Kalebarren 29 Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze  
EGITZUTUTAKO GANADU-HARAGIA  
CERTICAR  
CERTIFICACION DE PRODUCTOS CARNICOS  
CARNE DE VACUNO CERTIFICADA

**Kontulan Aholkularitza S.L.**  
Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak  
Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze  
Tifonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

**GILA TABERNA**  
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik  
Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!  
Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

# Plazentziatarrak munduan



## **Mikel eta Nagore Dominikar errepublikan**

Astebete egin dute Mikelek eta Nagorek Puerto Platan, Dominikar errepublikan. Hango hondartzak eta paisaiak liluratuta etorri dira "Hondartza ederrak ikusi genduzen, baina gehixenak hutsik zeren, urak ekarritako hondakinak erretiratzeke, zikin". Hotel

*"Zelako hondartzak!  
Ez dakixe ondo zer daken"*

barrutitik egindako irteeretan dominikarren errealitatea ezagutu dute. "diru oso gutxikin eta txaboletan bizi dira. Hala ta be ez dira triste bizi, oso alegriak dira,. "Bachata" dute bertako erritmoa. "Leku guztietan jartzen zeben euren musikia: hotelian, plaian, autobusian...kamareruak eta rezeptziñokuak be dantzatan, "que quieres brother?" , kriston artistak!"

## **Felipe, Silvio eta Javi Cuban**

La Habana jaioterrian izan dira abuztuan Felipe, Silvio eta Javi, familia eta lagunak bisitatzen. Bertatik bertara bizi izan dute beraz Fidel Castro "El caballo" , "el fifo" edo, "el tipo" presidentearen gaixotasuna eta ondorengo zalapar

*"Cubako etorkizuna Nostradamus berak ere ezingo luke asmatu"*

ta mediatikoa. Giroa lasai badago ere, kubatarrak "mobilizatuta" daudela adierazi digute, aldaketetarako prestatzen." Gobernuak neurriak hartu ditu eta aldaketa baldintzatzen hasi da. " Etorkizunaz galdetuta, zera erantzun digute: "Cubako etorkizuna Nostradamus berak ere ezingo luke asmatu"



## **INDIA Ainhoa Artolazabal**



## **BULGARIA Itziar Buruntza, Maria Egaña, Josune Egaña**



## **MEXIKO Mainer Gabilondo**





# barrena



## **Ainhoa India harrigarrian**

India ezagutzen izan da Ainhoa Artolazabal abuztuan, Bartzelonako lagun birekin. 15 egunez bolondres lanetan jardun zuten Mother Teresa zentruetako umezurtz-etxe batean, Kalkutan "Jente asko miseria gorrixan bizi da han. Askok dana egiten dabe

### *"kontrastez beteta dago India"*

kalian: lo, kaka, txixa, bazkarixa...usain oso fuertia dago, baina ohitu egiten zara". Hurrengo bi asteetan iparralderuntz jo zuten eta Baranasi, Ganges ibaia, Rajastan, Jaipur, Agra Taj Mahal, bezalako lekuak ezagutu zituzten. Indiatik gehien harritu dituenen "kontrasteak" izan omen dira, "pobreziatik aberastasunerako saltoak, eta baita Indiarren fedea ere".

## **Marga eta Daniel Txinan eta Tibeten**

Marga eta Daniel Txinan eta Tibeten izan dira abuztuan, lehengusu budista batek animatuta. Hark gidatuta, batetik bestera ibili dira, 3 astean 11 hegazkin hartuz. "Tibet ikusgarria da: hango mendien handitasuna, glaziarrak, ibar txikiak... Monasterio eta katedral budistak ere ezagutu ditugu". Tibetarren izakera

### *"Tibetarrak patsadatxuak eta alaiak dira"*

ere azpimarratu digute: "Patxadatsuak eta alaiak dira, nahiz eta euren herria Txinatarrek zapaldua eta inbaditua duten." Txina ez zaie hainbeste gustatu: "68ko iraultza kulturean aintzinako eraikin baliotsuak bota zituzten. Gaur egunean hazkunde betean daude, lanari emanda. 16 orduko lanegunak dituzte"



**LANZAROTE** Pedri Lete



**NEW YORK** Ander Garitano, Helena



**TIBET** Marga Cabezón, Daniel de Luis



## Argazki zaharren lehiaketa KZgunean

Kzguneak digitalizatutako argazki zaharren lehiaketa antolatu du datozen hilabeteetarako. Parte hartzaileen artean hilero egingo dira zozketak: kamara digitalak, bideo-kamarak eta maleta-jokoak besteak beste. Bestalde, hil honetan argazkigintza digital ikastaroa eskeiniko da Kzgunean, asteartero 18:00etatik 20:00etara.



### Helduen solfeo taldea osatzekotan

Aurten, zenbait lagunek erakutsitako interesa dela eta, hizkuntza musikala ikasteko helduen (14 urtetik gorakoak) taldea osatzekotan dira. Taldea osatzeko hiru lagun behar dira eta urriaren 6 rarte izango da horretarako aukera. Izen ematea Musika Eskolan arratsaldero (Nagore). Bestelako ikasgai edo instrumentuak ikasteko 150 ikaslek eman dute izena dagoeneko. Eskolak ematen 13 irakaslek jardungo dute.



### Abesbatzaren deialdia herritarrei

Ikasturte berria hastera doala eta, Abesbatzako zuzendaritzak koruan sartu nahi duten herritarrak animatu nahi ditu datorren asteetik aurrera ensaioetara etortzen has daitezen. Ensaioak Batzokiko lokaletan egingo dira, ostegunero (lehenengoa ostegun honetan, irailak 21) 20:15etatik 21:45era. Gaur egun 37 kantarik osatzen dute abesbatza, uztailean Kantarintxo gazte abesbatza batu zitzaientetik. Kurtso honetan proiektu berrietan sartuko da abesbatza.



**EUSKALTEGI BERRIA** Irailaren 26an inauguratuko da, arratsaldeko 19:30etan. Lokal berria liburutegiaren parean dago kokatua, kiroldegiko goiko aldean. Aurten euskaltegian euskera ikasi nahi dutenek 943201379 telefono zenbakira dei dezakete, irailaren 28a baino lehen.

## Zabalik EPAn matrikulatzeko epea



HHI (EPA) zentroan matrikulatzeko epea Irailaren 4tik 29ra bitartean

egongo da zabalik. Aukera ugari eskeintzen ditu aurten ere Helduen Hezkuntza Iraunkorrak: Informatika, Oinarrizko ezagutzak (irakurketa, idazketa), kultura orokorra, Bigarren Hezkuntzako Graduatua, Unibertsitaterako sarbidea, Euskera, ingelesa, Frantsesa eta etorkinendako gaztelania, besteak beste. Matrikula Baltegieta 18an egin daiteke. Informazio gehiago 943 75 30 17 telefonon.

# TXOKO KAFETEGIA



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789



## Hnos. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuesto konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Herria autobus eske!

*Iraila hasieran, Aldundiak erabat aldatu du PESAko autobusen ordutegia. Debagoieneko Garraio Plan berria ezartzearekin, autobus asko autopistaz bideratu dituzte eta ondorioz, Soraluzek lehen zituen zerbitzu asko galdu ditu. Donostiara eta Gasteizerako zerbitzua erdira murriztu dute eta Elgoibarrerakoa kendu. Egoera berriak, egonezin handia sortu du soraluzetarren artean. Herritarren plataformak egoera konpontzeko eskatu die Udalari eta Aldundiari. (Lerroon azpian plataformaren argazkia)*



*Alkatea: "Gu ere herritarren barku berean gaude"*

## 140 LAGUNETIK GORA UDAL BATZARREAN

Autobus zerbitzuaren murrizketa dela eta, hilaren 7an 140 herritar inguru hurbildu ziren Udal Batzarrera konponbide eske. Udal gobernu taldeak adierazi zuenez " bada urte ta erdi gai hau jorratzen dihardugula, eta ez Udalean eta ezta Debegesan ere, ez dugu aldaketen berririk jaso." Azken egunotako larrialdi eta kexei erantzunez, alkateak adierazi zuen " Aldundiarekin bilera asko" egin dituztela eta azarorako arazoa konponbidean izango dela agindudietela.

## SORALUZeko GARRAIO PUBLIKOAREN ALDEKO PLATAFORMA

Berehalako aldaketarik ikusi ez eta, herritarrek Soraluzeko Garraio Publikoaren Aldeko Plataforma eratu dute (langile, ikasle, jubilatue, etxekoandre, eta abarrek), Udalarekin lankidetzan, ahalik eta azkarren egoera bere onera etor dadin lortzeko.

Zenbait bilera egin ostean, eskaria egin diote Udalari, Foru Aldundiari eta PESAri herriaren beharrak kontuan hartu eta ganorazko zerbitzua eskaini dezaten. Arazoa luzatuz gero, sinadura bilketak, manifestazioak... egiteko asmoa agertu dute. Alkateak bere aldetik, egoera bideratzeko lanean diharduela adierazi zuen, asteartean Plataformarekin egindako bileran.

## ORDUTEGI ALDAKETAK

### EIBARRERA

Ordutegia aldatu (hamar gutxitara) eta asteburuetan gehitu (orduro) egin dute.

### BERGARARA-ARRASATERA

Ordutegia aldatu (laurden gutxitara) eta asteburuetan gehitu (orduro) egin dute.

### ELGOIBAR

Orain ez dago zerbitzurik.

### DONOSTIA

Ia erdira murriztu dute zerbitzua.

### GASTEIZ

Erdira murriztu dute zerbitzua.

*\* Iruñeakoak ez dira aldatu.*

### Informazioa jasotzeko:

tel. 902101210 (PESA) / [www.pesa.net](http://www.pesa.net).

*Aldundiak ez du konponbiderako epe zehatzik eman*

*Plataforma: "sinadura bilketak, manifestazioak... egingo ditugu, egoera luzatzen bada"*

*Ordutegiak erabakitzeke ahalmena ez da PESAren, Aldundiarena baizik*







**LASKURAIN SASOI BETEAN UDAN** San Antolinetako finalera arte, 12 partidu jarraian zeuzkan irabazita Haritz Laskurainek eta enpresak Irujorekin jarri zuen Lekeitioko torneorako. Finalerdietan bikain jokatu ostean, Iberotarrak eta Plaentxiarrak galdu egin zuten finalean Titin eta Goñiren kontra. Irujo berekoi aritu zen eta bikoteak ez zuen funtzionatu. Orduantxe eten zitzaion bolada ona Haritzi; ondorengo bi partiduak galdu egin ditu. Hurrengo partidua San Mateotan jokatuko du, lagunartekoa.

**EMAITZAK**

**ESKU PELOTA**

**JAUREGI**

*Leitzan*

- Olaetxea-Irureta 22
- Oinaz Gonzalez- Jauregi 20

*Amezketan, finalerdietan*

- Olazabal 18
- Jauregi 6

**LASKURAIN**

*Lekeitioko txapelketan*

- Laskurain-Irujo 14
- Titin -Goñi 22

*Santurde (Errioxan)*

- Titin-Matute 22
- Capellan-Laskurain 17

*Altsasun*

- Irujo-Lasa 22
- Titin-Laskurain 21

*Elgoibar*

- Atxotegi-Loiola 22
- Andreu-Goenaga 15

**FUTBOLA**

- Urki 0 - Sora 1 (erreg)
- Sora 1 (jub.) - Ilintxa 1
- Anaitasuna 7 - Sora 0 (kad.)

**AGENDA**

**PELOTA**

**ATXOTEGI ETA JAUREGI**

**DV TXAPELKETAN**

*Atxotegik 23an jokatuko du lehen partidua*

*Getarian 5etan*

Atxotegi-Otxandorena

Goikoetxea-Landaburu

**San Mateotan, lagunartekoa:**

-Arretxe II-Peñagarikano

Del Rey-Laskurain

# Joseba Garcia, dotore Laukizen

Hilaren 10ean Laukizen jokatu zen auto laisterketan 45 piloturen artean 15. denborarik onena egin zuen Joseba Garcia pilotu plazentziatarrak, kategoria guztiak kontuan hartuta. Bere kategorian, berriaz, bigarren posturik onena lortu zuen. Josebaren hurrengo hurrengo lasterketa Urraki portuaren igoera izango da, urriaren 8an.





*Mutua General de Seguros*

**Loli Nieves García**

Santa Ana, 13 • **SORALUZE**  
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659  
E-maila: mdnievas@mgs.es





**UFALA**  
irish pub

Garagardoa eta Kafea

**aukera ugaria**

943 75 00 30



**JATETKEA**

**TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE




*Disenua eta Sormena*

Polígono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

**Altzairuen fabrikazioa:**

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



Mikel Valero argazki lehiaketako irabazlea



# Jaixetako argazki albuma



**kutxa**  
gizarte ekintza



**IRATXO**  
GOXOTEGIA

**EGUNKARIA  
ETXERA ERAMATEN DIZUGU  
GEHIAGO ORDAINDU GABE**

**ETXABURUETA, 4  
20590 SORALUZE  
tlf: 943 75 13 20**

## Argazki zaharra



Iturria: Pedri Lete

## Jaunartze ospakizuna 1960ean

**Z**utik ezkerretik eskumara: Salvador Legaristi (+), José Luis Iso, Mari Carmen Taapken, Lupita Legaristi, Edurne Lacuesta, Fran Lete, José Legaristi, Txaro Lete, Catalina Epelde, Juanita Iraola. *Jarrita ezkerretik eskumara* Enrique Taapken (+), Moisés Lete (+), Erna Taapken, Maria Luisa de Lafuente - Pedri Lete (*Jaunartzeko protagonista*), Maria Nieves Onandia, Sara Lete. Atzeko argazkian Francisco de Lete(+) eta Dolores Onandia(+) ageri dira, Moisesen gurasoak. Gazterik hil ziren biak: 22 urterekin Dolores, 1917an, eta 27 urterekin Francisco, 1918an.

## Lehiaketa

1964



**Aurreko aleko erantzuna**

Soraluzeko lehenengo tanborrada 1964ko Santiago jaixetan egin zan Allegro elkartiak antolatuta.

## HERRIAREN HISTORIA

### GALDERA

Sagar-Errekan bazan ur mineralezko iturri bat. Ze izen zeukan?

- Igarateko iturrixa
- Argarateko iturrixa
- Ernizketako iturrixa

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra edo e-mail bat bidal ezazu:

**[pilpilean@euskalnet.net](mailto:pilpilean@euskalnet.net)**



**SARIA** →

Fisioterapia saio bat Ormazabal zentroan

**AURREKO ALEKO IRABAZLEA**  
Gabi Galán

**SARIA**  
Fisioterapia saio bat Gogortuz Zentruan



**VIDAL**  
**frutadenda**

Etxaburueta 2  
Tel. 943752055

**EDURTZA Kafetegia**  
Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze





*Fresaketa teknologia*



**SORALUCE S.Coop.** • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: [www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)



# LIMPIEZAS TREJO S.L.

## Garbiketa Industrialak

**Errekalde, 30 behea**

**Telf.: 943 75 25 57**

**Fax: 943 75 25 56**

**20590 SORALUZE**

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazozen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak

# aprende euskarara

**SORALUZeko AEK**  
de la mano  
de *aek*

**CURSILLOS:**  
de euskaldunización  
EGA y perfiles lingüísticos

Plazo de matrícula hasta el 25 de  
septiembre

**SISTEMA DE BECAS**  
con la colaboración del Ayuntamiento

943201379 soraluze@aeknet.net/  
eibar@aeknet.net

*aek*  
zure bidelaguna

902 36 22 94  
www.aeknet.net